

De Kooning, De la Fuente, Goenaga, Sanz, Sistiaga eta Zumetaren lanak aurrez aurre

Vanguardia galeriak euskal artisten lana eta amerikarrarena batu ditu Bilbon

Montse Arregi / Bilbo

PETRA PEREZ Vanguardia galeriako arduradunak atsegin du euskal artisten lanak eta kanpo-koenak batera erakustea, harremanetan jartzea. Orain Wilhem de Kooning estatu batuarraren bost litografia, Jose Antonio Sistiagak tintaz egindako lan bi, Jose Luis Zumetaren hiru koadro, Juan Luis Goenagaren olio bi, Txupi Sanzen lau lan eta Iñaki de la Fuenteren oihal bat zintzilikatu ditu Mazarredo zumardiko aretoan.

Perezen arabera, galeria baten lana da «bizi den tokiko lekuko izatea eta bertoko artea beste leku batzuetan sortzen denarekin alderatzea». Horrela, batetik bestera ibiltzean, toki ezberdinetan dauden artisten lanek daukaten harremana ikusten dute, «batzuetan bakoitza kontinente batean egonda ere loturak baitituzte; izan ere, kultura unibertsala da eta mezu bakarra dauka, mezu plastikoa», dio Vanguardiako arduradunak.

Erakusketa antolatzeke orduan buruan bueltaka ibili duen beste ideia bat hau da: «Agian Guggeheimen gaiarekin ematen du dena Amerikatik datorrela. Egia esan, garai batean mugimendu guztiak Estatu Batuetatik etortzen ziren, baina ez han sortuak zirelako, han suspertu eta berriro Europara indartuta itzultzen zirelako baizik». De Kooning amerikarren artean europarra dela uste du, bere garaian ezohiko pertsonaia bat izan zela. «Bizi izan zen garaian nahiko isolatuta egon zen. Orduan arte konkretua eta figuraziorik eza zeuden indarretan, bazirudien pintura, erre-presentazio hartua, amaitua zela. De Kooningek pintura abstraktuaren aldeko apustua egin zuen, baina errealitatearen erre-presentazio zena».

Arte ausarta gustatzen zaiola nabarmendu du Perezek, «bizi den garaian zerbait ezberdin esaten duena, ez modaren arabera». Horregatik, beti iruditu zaió interesgarria De Kooning.

Hilaren amaierara arte egongo da zabalik De Kooning & euskal neoespresionismoa erakusketa Bilbon, Vanguardia galerian. Bertan, Wilhem de Kooning estatu batuarraren lana eta Iñaki de la Fuente, Juan Luis Goenaga, Txupi Sanz, Jose Antonio Sistiaga eta Jose Luis Zumeta euskal artistena aurrez aurre jarriak daude. «Antzeko lengoaiak» badirela erakusten dela diote antolatuzaileek.



Hilaren 28ra arte egongo da zabalik erakusketa Bilboko Vanguardia aretoan.

XOUSE SIMAL

Euskal artisten lanak aurrez aurre jarri ditu, «ikus dadin nola nor bere kontinentean zela eta komunikazioa egun bezain indartsua ez zen urteetan bazeuden euskal artistak antzeko lengoaietan lanean ari zirenak, Zumeta eta Sistiaga kasu».

Gainera, antzekotasunak bilatzeko orduan De Kooning modetatik at bizi izan zela eta Euskal Herrian ere lan egiteko modu hori beti izan dela gogorarazi du Vanguardiako arduradunak. «Euskal artistak egundaino estudiodan lan egiten eta ikertzen aritu dira, aldi berean mundua ezagutzen. Ez dira askorik isolatu eta, aldi berean, ez dute eragin handirik jaso», azaldu du.

Etxe ondoan badira sortzaileak • Artearen barruan antzeko lengoaiak badirela erakusteko modua da erakusketa, antolatuzaileak azpimarratu duenez. Hala ere, nork bere mezua igortzen duela eta bakoitzak bere nortasuna baduela zehaztu du.

Arte mugimenduei dagokienez, Petra Perezek ustez, «gaur egun azkarregiak dira, ez dira erretzen». Egungo artean «zoritxarrez modak zerikusi handia» daukala uste du. «Horregatik begiratu nahi izan dut atzera. Hala ere, egun oraindik egiten den arte mota bat da; Barcelok egiten du, esaterako. Kontua da jada ez dela mugimenduz hitz egiten edota izena aldatu zaiola.

Agian denborak aurrera egin arte zain gaude izen bat jartzeko. Historia garaikidea idazten ari gara, eta, egia esan, lekuak ez digu askorik axola», adierazi du.

Galeriako ordezkariaren usteetan, «batzuetan jendeari gogorazi behar zaio inguruan beste toki batzuetan bezain gauza interesgarriak sortzen direla. Diferentzia da mugimenduak eta modak hazten dituztenak eta artistak ospetsu egiten dituztenak merkatuak direla. Eta merkatuak bildumazaleek egiten dituzte, eta horiek nahi duten tokian erosten dute. Urrutira joan barik etxe ondoan sortzaileak badirela ohartarazi behar zaie bildumazaleei».

Francis Baconen lan grafikoaren lagina Bilbon ikusgai

Artista irlandarraren 15 litografia, akuatintak eta punta lehorrak bildu dituzte Colon XVI galerian

Erredakzioa / Bilbo

FRANCIS BACON artista irlandarraren lan grafikoak dago ikusgai egunotan Bilboko Colon XVI arte galerian. Datorren apirilaren 22ra arte zabalik egongo den erakusketarako 15 litografia, akuatintak eta punta lehorrak bildu dituzte galeriako arduradunek.

Bilbon erakusgai jarritako lan grafikoak 1971. urtetik aurrera landu zuen artistak, 1992an hil zen arte egindako beharra da. Pa-

pera euskarri duten lanok milioi erdi pezetatik gorako salneurria daukate (20.000 libera baino gehiago).

Fracis Baconek landutako arlo artistiko ezagunena pintura da. Bilbon zabalik den erakusketak haren lan ezagunena ikusteko aukera eskaintzen du.

Mende honetako artista garrantzitsuenen artean dago Bacon (1909-1992). Gizakia eta barkadadea izan dira haren lanaren ardatza. Marrazkiak, olioak eta

akuarelak erakutsi zituen 1933. urtean egin zuen lehen erakusketan. Hamar urtetan erakusketarik egin gabe egon ostean 1944an indarberrituta itzuli zen. Orduan *Figuren hiru ikerketa gurutzeratze baten oinarria egiteko* izan zen kaleratu zuen lan berria, aldi berean etapa artistiko berri bati hasiera eman ziona. Figura desitxuratuak margotu zituen batez ere etapa berrian, eta artista polemikoaren ospea hedatu zen. Aurrerago, ikuspegi artistikoan sakon-

duz joan ahala, nabariagoa izan zen haren lanen amets-gaizto itxura, satira figuratiboa.

1954. urteko Veneziako Biurtekoan izan zuen partaidetzak eta Londreseko ICA Galleries delakotetan egin ziren atzera begirako erakusketek arrakasta handia izan zuten. Gero etorri ziren Chicago, New York eta Parisko erakusketa arrakastatsuak. Munduko museo garrantzitsuenetan aurki daiteke Baconen lan grafikoak, margoetaz gain, noski. X

Enkarterrietako errotak museoan maiatzaren 31 bitartean

Abellanedako

Museoak antolatu du erakusketa

Erredakzioa / Bilbo

ABELLANEDAKO Enkarterrietako Museoak Errotagintza tradizionala Enkarterrietan izeneko erakusketa zabalik izango du maiatzaren 31 bitartean. Erakusketa horretan, plano, agiri, argazki eta, batez ere, eskualdeko errotetako zati izandako objektuen bitartez, nekazari giroan hainbesteko garrantzia izan zuten etxe haien nahiz lanbidearen berri ematen da, eragin ekonomiko eta soziala aztertuz.

Enkarterriak erreka eta erreka zoz josiak izatean, errota anitz zegoen han garai batean. Historiaurre garaitik gaurdaino heltzen dira Enkarterrietako errotagintza aztarnen agiriak. XIX. mende hasieran, esaterako, 114 errota edo bolu baziren lan egiten zutenak eskualdean. Bertako toponimiak ere baditu errotagintzaren aztarnak, hala nola Bolibar eta Bolunburu izenak.

Gainera, guztion ezagunak diren erreka bazterreko errotez gain, Enkarterrietan eskuzkoak, haizezkoak eta itsasoaren mareak baliatuz alea xehetzen zuten errotak ere baziren. X

Schommerrek 'Flamenco' argazki liburua kaleratu du

Erredakzioa / Gasteiz

ALBERTO SCHOMMER argazkilari arabarrak flamenkoar buruzko liburu bat argitaratu berri du. *Flamenco* izenburuarekin, zuri-beltzean egindako 120 argazki biltzen dira liburuan, eta Caja de Granada argitaratu du. Horrez gain, liburua erakusketa ibiltari baten bitartez ari dira ezagutzeko.

Duela hamar bat urtetik ari zen argazkilari arabarra flamenkoaren inguruko proiektu hau martxan jarri nahian, eta joan den udan hasi zen gauzatzen azkenean. Andaluziar kulturak ezartzen dituen baldintzen jakitun omen zen, batez ere arte, kantu eta dantza flamenkoarenaz. «Zailtasun handiak topatu ditut horretan», batez ere kamera aurrean jartzeko hainbat pertsonak zituzten eragozpenengatik.

Miguel Moya kazetariak eta Juan Verdu artista sustatzaileak laguntza ezinbestekoa eskaini omen diote Schommerri.

Liburuak biltzen dituen 120 irudiak Chiclanan, Cadizen, Granadan, Sevillan eta Xerezten ateratakoak dira, eta argazkilariak berak osatutako *La erótica del flamenco* testuarekin batera argitaratu dira. X